Euskal Herria



Izan zirelako gara...



... garelako izango dira.

# LAUBURUA euskal nazioaren ikur? (I. Atala)







001001001001001001001000100100100101000100100010101
010100101010101010010101001010010101001010010101010
001010100101010100101010010010000101001001001010100100
100101101010010001010001000100100100010010001001001
0100010000100111............. Gaur da etorkizuneko historia...

# “Lauburua, euskal nazioaren ikur?”

Azaleko irudia*:*

*K.a. I. milurtean sortua zen Iruña-Veleiako hirian aurkitutako Lauburudun harri baten argazkia.*

Azaleko esaera:

*”Izan zirelako gara, garelako izango dira.”  On Joxe Miel Barandiaran antropologoaren hitzak.*

Lauburuaren biltzarra

2022ko iraila

**Aurkibidea**


**Hitzaurrea**……………………………………………………………………………………………………….4

LEHEN ATALA: EUSKAL ESTATUAREN BATASUNERANTZ BIDE LUZE BAT

**I. Nondik gatozen labur gogoratzen**…………………………………………………………………….6

*"Euskara da euskaldunon aberria"* -Txillardegi

**II. Lauburua, euskaldunon berezko ikur**?...................................................................10

*"Euskal ikur nagusiena da Lauburua"* - Jakue Pascual eta Alberto Peñalba

***III. Goazen gudari denok Ikurriñan atzean***…………………………………..………………………..42

*"Euskal Herrian, hasieratik gehien jazarritako ikurretako bat "*- Iñaki Egaña

**IV. Lauburua eta Ikurriña, komenientziazko ezkontza?**..............................................56

*"Aunque el lauburu era diferente de otros signos expresamente prohibidos (como la ikurriña o la palabra Euskadi)"* - Santiago De Pablo EHU/UPV

**V. Historiaren garai berriak datozela**……………………………………..………………………..…64

"*Estamos en un fín de época y ante un cambio de paradigma" – Antonio Álvarez Solís*

VI. **Altxa dezagun utopiaren bandera!** ……………………………………..…………………………70

*Nazio arazoa imajinazio arazoa delako - Joseba Sarrionandia*

*VII.* **Gogoetak ametsezko bide batean**…………………………………………………………………..82

*"Euskaldunon independentziaren gogoa ez dela konplituko horretarako estrategia egokia asmatzen ez bada"- Joseba Sarrionandia*

**Hitzaurrea**

Ikurriña eta Nafarroako banderaz aparte, baditugu bospasei ikur kuttun euskaldunok, nolabait munduaren aurrean aurkezten gaituztenak:



Eskuartean duzun zazpi ataletan banatutako josketa lan enpatiko honetan biltzen dira Lauburuari eta beste ikurrei buruzko amaigabeko informazio bilaketak, Internet sarean batez ere. Internet liburutegien emanazio zabalagoa eta etereoa omen da, horrela ba, saiakera hau ezinezkoa zatekeen sarean elkar banatzeko informazioa sarean elkarbanatu dutenengatik ez balitz.

Lauburuaren esanahiaren eta historiaren inguruan hemen azaltzen diren edukiek, bakoitzarengan sortu lezaken hausnarketa bideratu nahiko lukete.

Horrela ba, gaur eguneko euskal gizartea eta euskararen osasun egoerak sortzen duen egonezinak bultzatuta, orain dela hamarren bat urte ireki zen ordenagailuan lan honen lehen fitxategia, eta ondoren ibiliaren ibiliaz, beste fitxategi ugari sortzen joan dira hainbat ikuspegitatik begiratuz.

Erroetara garamatzan galdera bat luzatuz hasten da hitzaurre hau: Osasuntsu al dago euskal gizartea?

OMS-ek, Munduko Osasun Erakundeak, honela definitzen du osasuna: *Ongizate fisiko, mental eta <u>sozialeko</u> egoera.*

Tamalez, alde sozialean ikasgai bat edo beste gainditzeke dauzkagun zantzuak ageri dira noizbehinka gure artean. Atzerriko komunikabideek darabilten gure irudi liskartsua horren adierazgarri delarik.

Joseba Sarrionandiak "Hitzen ondoeza" gogoeta liburuan, nazioa eta nazionalismoari buruz honela dio:

*"Nazioaren definizioak arraza, hizkuntza, geografia edo borondatez "batasunaren" ideian oinarritzen ziren.*

*Gaur egun diren nazio gehienak, ostera anitzak, zatituak eta gatazkatsuak dira berez.*

*Eta eskerrak, ezen eta zenbait abertzaleren kontzeptu batasunzale estuak aintzat hartuez gero euskal naziorik ez litzateke jadanik posible"*

*"Baina nazioa ez da bakarrik anitza, zatitua, gatazkatsua. Nazioa komunitate imajinarioa da.*

*Nazio tipienaren partaideek ere ez dituzte bere komunitate lagun guztiak ezagutzen. Komunitatearekin identifikatzeko, beran arteko elkartasuna asmatu eta etengabe imajinatu behar dute.*

*Horregatik da literatura eta artea arazo nazionala. Horregatik erabakitzen dute eskolek, eta gero, komunikabideek zein den nazioa eta zein ez den. Nazio arazoa imajinazio arazoa delako"*

Historiari begiratuz badakigu behintzat, gure herriak azken mendeetan jasan duen atzerakadei tinko eustea lortzen duela, euskara ofiziala da eta nolabaiteko euskal instituzioak baditugu. Baina zantzuak nabarmenak dira datorren aro berri baterako egokitzapen etengabe bat behar dugula euskaldun moduan bizirauten jarraitu nahi bagenu. Euskal Herriaren eraikuntza nekaezinean euskal herrietako biztanlego "zaharra" eta "berria"-ren gehiengoa inplikatu beharko lukeena.

Auñamendien, edo Pirinio mendien iparraldean alde bietara hedatzen den lurraldean mendeetan bizi izan den euskal komunitateak betidanik izan du bereizmena ematen dion nortasun propio bat. Nortzuk? Prehistoriatik hasita gaur egun arte gizon eta emakume talde desberdinek arrazoi batengatik edo besteagatik, munduko txoko honetan bere bizitza egitea aukeratu dutenek, edo halabeharrez behar izan dutenek.

Iragan hurbileko ikur eta banderei dagokien begirunez eta bere lekua aintzat hartuz, baina beste aldetik euskal erroetara itzuliz, datozen garai berrietan aise nabigatzeko euskal sinbologian Lauburuari toki jasoago bat emateko asmoz, hauek lirateke zeregin honetan izan diren xedeetariko batzuk:

- Nazio ikurrei buruz gogoeta suspertzea. Gure sinbologia historikoa euskal herri osoaren ahotan jartzea eta era berean gizartea integratzeko balio lezaken eztabaida foro bat irekitzea. Eztabaida gai sano eta nazio eraikitzaile bat sortu. Naziotasuna landuz bide batez.
- Denon artean pilatzen ditugun hainbat sinbolo bateratzea eta egitura txukun bat ematen saiatu.
- Pirinioen iparraldearen alde bietako komunitate honetako parte garen guztion ordezkari den sinbolo baten ernaberritzea eragin.
- Hegoaldeko bi autonomien artean zein iparraldeko departamentuekin lotzen gaituen lokarri fin baina sendoa iruten jarraitzeko adorea eman.
- Diasporako herrialdeen protagonismoa hauspotu.
- Jatorri desberdineko euskaldunen sustraiak aldi berean errespetatuko dituen ikur baten beharraren gaineko gogoeta bultzatu.

Itxaropenezko ikuspegi zabal batetik, mendeetan zehar munduko gizartea hoberantz eboluzionatuz doala onar genezake, bere gorabeherekin noski. Aintzinako morrontza ereduetatik, feudalismotik, langile borrokaren lorpenetara, feminismora…eta abar luze bat zerrenda genezake.

Euskal gizarte "eguneratu", aurreratu, plural bat lortzea ezinbestekoa litzateke etorkizuneko mundu digital, inteligentzia artifizial, Big-Data etabarrekin eratutako mundu batean lekua izateko (Covid-gatiko etxeratzeekin eraldaketa hau areagotu egin da). "Aberriaren mugak, euskararenak" kantuko Joxerra Gartziaren hitzek inoiz baino indar handiagoa hartzen du gizarte gero eta globalizatuago honetan ("Aldea Global" kontzeptua).

Amaitzeko, inspirazio iturri izan diren jakintsuenen esanak edo artisten sorkuntzak oinarri, eta ezinbestean sormenari hegalak emanez, lan honen bigarren atalean proposatzen dira Euskararen Errepublika plural bat iradoki dezaketen diseinu eraldatzaile batzuk.

EUSKAL ESTATUAREN BATASUNERANTZ BIDE LUZE BAT

## I. Nondik gatozen labur gogoratzen

*"Euskara da euskaldunon aberria"* –Txillardegi

Jose Luis Álvarez Enparantzaren esaldi hau, 60. hamarkadako *Branka* aldizkarian argitaratu zen, Sabino Aranaren "E*uskaldunen aberria da Euzkadi da*" parafraseatuz.

Beste euskal idazle garrantzitsu batzuen hitzak aipatuz, "*Euskararen egiazko misterioa iraupena da, ez jatorria*" – Koldo Mitxelenak edo "*Euskara da gure territorio libre bakarra"* Joseba Sarrionandiak esanak.

Beste bat aipatzearren, Amets Arzallusek dioen bezala *"Euskal Herria ez da eremu geografiko bat, Euskal Herria barruan sentitzen dugunok osatzen dugun taldea da Euskal Herria*". Aldiz, aski kezkaz galdetzen du, euskalduntasuna ez ote garen galtzen, lurruntzen, eta gero eta erdaldunago garen.

Azken milurteetan euskara atzeraka joan den arren, aitzineko hamar milaka urteetan eremu zabalago batera hedatzeko gaitasuna zuela erakutsi zuen ordea. Beraz itxaropenez baieztatu daiteke, zabaltzen eta bizirauten laguntzen dion berezko xarma baduela euskarak.



Historia Aurrean, humanitateak hitzen bidez komunikatzeko beharraz euskara noizbait sortu zenean, mapan ikus daitekeen eremuetararte hedatu zen (Kantabria, Errioxa, Soria eta Pirinioz bestaldetik Akitaniaraino). Bere hiztegiagatik, doinuagatik, morfosintaxiagatik, azalerazten zituen baloreengatik… auskalo. Sua bilatzen atera ziren haiek ere, hizkuntza, kultura eta gizarte aurreratuago bat sortzeko gai izan zen.

Baina Erdi Aroan, Erresumek lurralde emankorrenetaz bortizki jabetzeko eta bertako jendea menperatzeko garaiak heldu zirenean, sarraskiak, gudak, saldukeriak, inposizio eta debekuen poderioz, euskara hitz egiten zen lurraldea atzeraka joan da azken bi mila urtetan. Hala ere, garai bakoitzean ahal den moduan irmoki borrokatuz, jakin du eusten eta eboluzionatzen.

Euskaradunen historia luze honetan, munduaren bilakaera geopolitikoak bultzaturik, izan du euskararen herriak, estatu independente bat Erdi Aroan (Orain dela soilik ehundaka urte): Nafarroako Erresuma.






*Euskaldunak konkistatzeko gudetan, suntsitu zituzten hainbat Nafar gazteluren kokalekuen mapa. 1212. urteko Nafarroako Erresumaren bandera.*

*Carbunclo pomelatuzko* kate horidun bandera gorri horren atzean, bizikide euskaldunak inbaditzaileengandik babesteko hainbat borroka galdu zituzten independentziaren kaltetan. Baina euskaldunak ez dira desagertu eta banaturik gauden arren gure arteko harremana ez da zorionez guztiz hautsi. Batek zioen bezala, *"Ez dezagun historia guda gizonen eskuetan soilik utzi"*.

Beste estatuen menpe egon arren euskaldunek jarraitu dute munduko historian bere ekarpena egiten. Aro Modernoan adibidez euskal itsas gizonek garrantzi itzela izan zuten mundu mailako itsas nabigazioan. Orduko petrolioa zen bale arrantzatik hasita, Ameriketarako lehen bidaiak, Elkanok munduari bira eman, edo eta Loiolako Ignazio edo San Frantzizko Xabierretik igaroaz.



Munduari bira lehen aldiz Juan Sebastian Elkanok eman zion.(Orduko Cabo Cañaveral zela esan dezakegu zela euskal ontzigintza)

Aro garaikidean oraindik euskal herri askerik gabe, Sabino Aranak bultzada eman zion abertzaletasunaren kontzientziari. Faszistengandik tinko defendituz galtzen dugu beste borroka hau ere.

Gaur egun, nolabaiteko autonomia dugu Frantzia eta Espainiar estatuen barruan eta Sabino Aranak asmatutako Ikurriña dugu onartuena denon bandera legez. 1979ko Euskal Autonomia Estatutuan, bigarren aldiz ofizialdu zen Ikurriña Euskal Autonomia Erkidegoko bandera ofizial gisa:



Jauntxoek eta gudagizonek inposatutako lurraldeen gainetik euskaldunok lotzen gaituen, eta lotuko gaituen, euskal sena mantendu da historian zehar.

Unean uneko mugaz gaindi, hona hemen Baionako Bernat Etxepare Lizeoak argitaratutako mugarik gabeko euskal herriko mapa:



Historian zehar herrialdeen muga geografikoak dinamikoak izan dira eta izango dira. Irudikatu ahal dugu beste mila urte barru? Muga birtualek garrantzia handiagoa ez ote?

Euskal historia “hurbila” ezagutzen dutenentzako baliteke Nafarroako Estatuak zilegitasuna izatea baina ba al da gaur eguneko Euskadi , iparralde edo Nafarroako Foru Erkidegoko biztanleen gehiengoentzako? Gaur egun osatzen dugun euskal gizartea, historian zehar izan diren hainbat migrazioen eta hauen arteko elkarbizitzaren emaitza bat dugu. Anitza, aberatsa, interesgarria... hainbat ezaugarri positiborekin, baina bakoitzaren eremua defendatzeko eraikitako lubakietan bizi garen erakuskariak daude oraindik. Abertzale izatea erabaki dutenak eta ez horren abertzale direnak.

Poza ematen du esaterako Errumaniar, Txinatar, Saharatar, Senegaldar, Bolibiar zein Galiziar edo Extremadurako etorkinen haurrak kalean euskaraz solasten entzuteak. Edo adibidez *Sonakay* musika talde Donostiarraren *Izarrak*, *Euskal Herriari* edo *Txoria txori* abestien bertsio flamenko apartak entzuteak (Youtube-n daude entzungai).

Baita poza ematen du diasporakoen nola mantentzen dituzten oraindik beraien sustraiak eta euskera. Adibidez Eusko-estatubatuarrak (ingelesez *Basque Americans*), euskaldun jatorria eta estatubatuar herritartasuna duten gizabanakoak dira. Ameriketako Estatu Batuetako 2000ko erroldan, 57.793 estatubatuarrek alde bateko edota euskaldun jatorri osoa omen dute.
https://eu.wikipedia.org/wiki/Eusko-estatubatuarrak

Ikuspegi orokor batetik begiratuta, zorionez badirudi euskararen azken milurtekoaren atzerakada geldituz joan dela azken hamarkada hauetan Euskal Autonomi Erkidegoan behintzat. Nahiz eta gaur egun, uneko gobernuaren babesa behar duen oraindik, inboluzio horren inflexio puntu garrantzitsu baten aurrean jarri behar gara ordea datozkigun garai berriei egokituz.

Munduan txikiak izanik ere, asmoz eta jakitez iraun du euskarak eta euskal izanak, eta guztion ekarpenekin, txikienak direla ere, iraun beharko luke bidezkoagoa litzatekeen mundu batean.

**II. Lauburua, euskaldunon berezko ikur?**

*"Euskal ikur nagusiena da Lauburua"* (Jakue Pascual eta Alberto Peñalba)



Horrela kategorizatzen dute *El juguete de Mari*, Lauburuari buruzko tratatu sakon honetako egileek. "*Etorkizuneko euskal errepublikentzako ondare eta ziur aski Jorge Oteizak oihukatuko lukeena"* diote.

Lauburua esbastika forma bat dela esan genezake. Esbastika mundu osoan zabaldua zen aintzina aroan. Gaurdaino forma desberdin eta ingurunetan iraun duena. Esanahi erlijiosotik hasita apaingarri gisa erabiltzerainoko eremu zabal batean. Bitxiki, euskaldunon lauburua dugu munduan "bizirik" dirauten esbastiketariko bat.

Esbastika, 15.000 urte inguru dituen sinbolo arketipikoa* da.

*Irakurlearengan erantzun sakonak eta batzuetan inkontzienteak sortzen dituzten ikur unibertsalak deskribatzeko erabiltzen den terminoa. Esanahi unibertsalak eta oinarrizko giza esperientziak sinbolikoki biltzen dituzten pertsonaiak, irudiak eta gaiak, noiz edo non bizi diren kontuan hartuta, arketipo gisa hartzen dira.

*(Jan Brukner. Historical examples of arhetypal symbols)*



https://www.bbc.com/mundo/noticias/2014/10/141023_cultura_esvastica_simbolo_antiguo_
whttps://encyclopedia.ushmm.org/content/es/article/history-of-the-swastikabm

Lauburuaren oinarri berekoak dira munduan zehar: Ying-Yang (Ikurrik hedatuena eta tatuatuenetarikoa), Tomoe japoniarra, Triskele keltiarra…:






Esbastikak badu ordea historian alde ilun bat, Naziek 1920-1945 artean erabili zuten eta tamalez ezjakintasunarengatik, edo asmo txarrez, Lauburuarekin erlazionatzen dute.



¿Cómo de convirtio la evástica en un símbolo Nazi?

https://academiaplay.es/convirtio-esvastica-simbolo-nazi/

*Punto y Hora aldizkariak aldiz, Euskal Herriaren ikur gisa irudikatzen du (1977)*




El "enigma" que irritó a los Nazis en 1933: https://www.abc.es/historia/abci-esvasticas-pais-vasco-enigma-irrito-nazis-1934-201806272140_noticia.html

Naziek Asiako Indo ibai inguruetatik omen datorren aria arrazaren nagusikeria adierazi nahian, bertan erabiltzen zuten aintzinako esbastika hartu zuten beren ikur gisa (gaur egun zorionez galazota dagoen ikurra). Ideia horren ikuspuntutik denok ezagutzen ditugun basakeria ugari egin ziren eta horien artean, bitxiki sinbolo berbera erabiltzen zuten Euskal Herriko hainbat herri, historian lehen aldiz, basatiki bonbardatu zituzten. Hori adierazteko margotu zuen Pablo Picassok munduan ezaguna den "Guernica" zuri-beltzezko obra (1937):



Genozidioa, komunitate baten ezeztapen kulturala gertatzen denean ere badela gogorarazten digu Xabier Irujok, Estatu Batuetako Renoko Unibertsitateko Euskal Ikerguneko zuzendariak.

**Lauburua historiaurretik gaurdaino euskaldunon artean**

Miguel Unzuetaren *Bizkaia preromana*, 1990ko bere lanean agertzen dira ere toki batzuetako esteletan. Adibidez:

- Santa Elena. Meñaka:



- Arrietako Jainko Auzoko Andra Mari Zuria:





- Kurutzeko Ama Birjinaren estela. Forua:



- Busturiako Paresiko Ama Mari Zuria ermitan:





- 2020an Foruako San Kristobal ermitaren zaharberritze lanetan, lauburua agertzen den hilarri bat aurkitu zuten. ([https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20201221/kristautasunaren-aurreko-hilarri-bat-aurkitu-dute-foruko-san-kristobal-ermitan](https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20201221/kristautasunaren-aurreko-hilarri-bat-aurkitu-dute-foruko-san-kristobal-ermitan))



- 1950 urtean, Erromatar garaiko Iruña-Veleiako indusketetan grafito pare batean agertzen da ere (Gasteizeko Bibat museoan gordeta- Gratiniano Nieto):



- Arratzun (Bizkaia) **Gastiburuko Santutegia** K.a. III. mendean eraiki zutena. Balio sinboliko, erlijioso eta politiko handia zuena garai hartan. Gurtza tenplu honen plantak, txori baten ikuspegitik begiratuta, lau zirkunferentzia antzeman daitezke.




*Gaur egun monumentu konplexu eta berezi honen aztarnak besterik ez dira gelditzen. Pentagono(?) formako plaza baten inguruan batzen diren lau egitura ikus daitezke. Eraikin horien oinek ferra forma dute. Handik hurbil, beste hiru eraikin zirkular daude, lerroan kokatuta. Santutegia harriz eta buztinaz eginda zegoen, eta barrualdetik berriz, enborrez egindako egitura korapilatsu batez indartuta zegoen.*

https://turismo.euskadi.eus/es/patrimonio-cultural/santuario-de-gastiburu

https://arkeohistoriatriskel.wordpress.com/2019/02/07/santuario-de-gastuburu-arrazua-bizkaia/

Ordutik, Euskal Herri guztiko bazterretan hainbat lauburu agertzen dira gaurdaino . Hala irakur dezakegu Auñamendiko Hiztegian: https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/lauburua/ar-87432-137386/

*"Svastika lerromakurra Euskaraz eman zaion izen bakarra lauburu da. Svastika lerromakurra ia Euskal Herri osoan oso modu oparoan aurkitu da, eta bereziki, hizkuntzari eutsi zaion eremuan, arte herrikoiaren adierazpen guztiekin gertatzen den bezala. Jarraian ikusiko dugun bezala, badirudi hau dela Euskal Herriko forma ohikoena, Euskal Herritik zabalduta dauden adibide guztiak aintzat hartuz, lorratzetan, hilarrietan, ateburuetan, etabar…"*

Gehienak lau burukoak eta destrogiro(eskumarantz) biratzen, baina baita beste zentzuan biratzen eta buru gehiagoko bakan batzuk ere aurki ditzakegu:






*Elorrioko Arginetan Erdi Ariko estelak (Lehen irudia).* Santa Cara, Oliten (Bigarren irudia. *De Navarra IV- Simbología: Lauburus y otras especies).Belloc-eko monastegian Lapurdin (laugarren irudia)*



Beste lauburu  zahar batzuk aurkitzen diren toki batzuk aipatzearren:

I-II mendea: Gastiain-go San Sebastian ermitan (Nafarroa)

XI. mendea: Elizmendiko ermitan. Kontrasta (Araba). Modilloietan

XIV. mendea:  San Juan Bataiatzailearen elizako bobedan. Guardia (Araba)

XV. mendea: Baionako (Lapurdi) katedraleko mendebal aldean dauden lehioetan.

XVI. mendea: Uxueko (Nafarroa) plazan dagoen Iriarte etxean.

XVI. mendea: Iruñeko katedralaren zutabeetako baten kapitelean

XVII. mendea: Auzberriko (Nafarroa) estela batean

XVII. Eparotz (Nafarroa) Santa Fe elizako klaustroan

XVIII. mendea: Badoze, Lapurdiko etxe baten aurreko horman

Gaur egun ezagutzen dugun lauburu borobildua, berezko euskal diseinuzkoa da. Ezagutzen dugun zaharrena Bastidan (Nafarroa Behera) aurkitu omen zen 1560an.

Geroztik, gaurdaino, hainbat tokitan zitzelkatu da, honatx adibide gutxi batzuk aipatzeko:

- Bidarrai, Nafarroa Beheran, aurkitzen da 1690eko bat:




http://sierrasalvada.blogspot.com/2021/08/el-origen-del-lauburu.html?m=1

- Elorrioko (Bizkaia) Igurian, Ibarluzeko arkuaren inpostan: 1770 ingurukoa.



- Armendaritzen (Nafarroa Beherea), Domingo Ainziondo eta Maria Aretxeren etxea atarian (1775)



- Bidarraiko (Nafarroa Beherea) hilerrian: Maria Ana Petiriskoenaren hilobia (1789).



- Bostburua, Ispazterreko (Bizkaia) Solarte Arteakoaren atariko arkuan. (1773)



- Askaineko hilerrian 1876:



- Iparraldeko etxe bateko atariko giltzarrian (1889)



Mundu zabalean genbiltzanean  ere eramaten genuen:

- XVII. Mendean Kanadako euskal konpainia bateko kanoa bateko proan: https://www.jauzarrea.com/es/lauburu







- *Combinación de símbolos en la verja de una casa de Guayaquil (Ecuador), construida el año 1935 por una familia de origen vasco.*



---

Espainiako Guda Zibil aurretik:

https://zepolitte.wordpress.com/2014/06/04/uso-de-la-esvastica-en-el-periodo-anterior-a-la-guerra-civil/

- Ondarroako baporeetako proa batzutan,







Beste lan mardul batetik ateratako irudi batzuk: ***“Utilización del Lauburu por el nacionalismo vasco antes de 1936”*** *(*Andoni Esparza Leibar, *2004)*

- Membrete utilizado en 1934 por la Federación de Escuelas Vascas:



- Anuncio de un jarabe, publicado en La Voz de Guipúzcoa el año 1928:




- Sellos de la campaña «Pro Universidad Vasca»:




- Euskeraren Adiskideak elkartea:



- Anuncio de Berrio-Otxoa Burdiñola, año 1926.




Sabino Aranak berak bultzatu zuen Lauburua euskal abertzaletasunaren ikur bere bizitzaren azkenerarte. Hasiera baten erabiltzen hasi zen.

- Euskadi egunkarian argitaratutako eskela (1932ko azaroaren 25):




- Edo Donostiko Eusko Jel Alderdikoa:



- Lapurdin 1920-30 hamarkadetan ekoiztutako ontziterian, edo Euskadiko enpresarik garrantzitsuenetako baten (CAF) ikur bezela, agertzea lortzen zuen lauburuak:





*II. Errepublikaren garaiko metalezko lauburu bat, 85 urtean lehenengo aldiz, jende aurrean erakutsiko dute berriz Gabirian (Gipuzkoa). Lauburua edukitzea frankismoan gogor zigortuta zegoenez, Artzein baserriko pikuaren azpian gordeta eduki zuten, denboraldi handi batean (Goierriko Hitza, 2021 apirila)*



Faszismoaren aurka borrokatu zen ANV-k ere, Lauburua aukeratu zuen ikur:




Donostiako ANV-ko militanteak (1920-30)



Hainbatek bezala, arerio izan diren Nazien ikurrarekin ez nahasteko Lauburu borobilduarengatik ordezkatu zuten:





Guda zibilean, *Euskadiko hegazkiñarentzako* diru batzea Arratzun (Bizkaia):




Nafarroako Partido Nacionalistas Vascos 1977-an



Euskal langileen armarria, Federico Krutwig-ek diseinatua 1963-an



https://redib.org/Record/oai_articulo2738234-el-lauburu-pol%C3%ADtica-cultura-e-identidad-nacional-en-torno-a-un-s%C3%ADmbolo-del-pa%C3%ADs-vasco Santiago Pablo

Harrizko estela, “*Euzkadigaitik bizia eman zuten gudarien omenez*” :



Frankoren diktadura garaiko definizio bat (1960 hamarkada):



LAUBURU

ESP. El Lauburu simboliza los cuatro elementos de la naturaleza (Agua, Fuego, Tierra y Aire), y la unión de las 4 tribus vascas de la antigüedad (Vascones, Autrigones, Várdulos y Caristios). Este es uno de los símbolos más representativos de la cultura vasca, al igual que el Eguzkilore. Representa un sol en movimiento, los antiguos vascos lo saludaban al amanecer y lo despedían al anochecer. Consideraban que el lauburu los protegía de los espíritus maléficos y de los rayos de las tormentas. Por lo tanto se le considera un amuleto protector.

Aipatzekoa mitologia eta Lauburuari buruzko lan mardul hau: “**EL JUGUETE de MARI + tratado estético del lauburu” (**1999. Alberto Peñalba, Soziologoa -Jakue Pascual, Grafikoa):




Liburu honetan, lauburuak darion indar unibertsala agerian gelditzen da.

*El* ***Lauburu*** *se forma en la socialidad del batzar, del auzolan*… Liburuari begirada sakon bat ematea merezi du. Bere zentzu zabalarekin ume, gazte, helduak, zein adineko euskaldun zahar zein berriak, fededunak zein ez, muga geografikoen gaindik biltzen gaituelako. Mundu honetako kide, bidelagun, egiten gaituelako.

*“El libro reformula el mito de Mari alrededor de varios ejes:*

*La aproximación hacia la significación de una estética cósmica, biológica y social, a través de estructuras universales complementarias, susceptibles de una aproximación fractal como son la espiral, el crómlech, el ying-yang o el LAUBURU.”*

Gure kulturan aurki ditzakegun forma hauek, naturan ere agertzen dira eredu matematiko fraktal konplexu bezain ordenatuak jarraituz.  Materialen kristalografiatik hasi, eta galaxien egituretaraino.  Baita bizidunetan ere, adibidez landare eta lora hazte ereduetan (filotaxis), bakterioetan, arrainen eskametan edo dortoken oskoletan aurki ditzakegu forma hauek.



Naturaren prozesu ziklikoak jarraituz eratzen dira egitura fraktal hauek. Hasiera batean kaotikoa diruditen joera hauek, eredu ordenatuak sortzen dituzte eta horien emaitza bezala har liteke gure lauburua ere.

Gure arbasoak badirudi gai zirela naturaren egitura hauek nolabait antzemateko. Ekosistemak ulertzeko eta bere baitan gizartea egituratzeko.

*“ Significación de una estética cósmica, biológica y social. Un equilibrio cósmico de fuerzas contrapuestas expresadas en el Lauburu, como condensador genético de la materia y la energía. El ying, las oscuridad, el yang, la luz. Así la materia del vacío queda armonizada.*

…

*Y la indagación sobre la lógica que constituyen la institución originaria de los muchos en asamblea de iguales (Batzar) y la del soporte de lo común por la ayuda mutua (Auzolan)”*

Irakurtzeko beste lan sakon bat: ***"El lauburu. Política, cultura e identidad nacional en torno a un símbolo del País Vasco"*** (Santiago de Pablo Universidad del País Vasco-2009) https://dadun.unav.edu/bitstream/10171/17778/1/47916491.pdf

Lauburuari buruzko beste informazio ugari aurki daiteke web sarean zein liburuetan:

*"Euskaldunek aspaldidanik jo dute lauburua eguzkiaren ikur nagusitzat. Lauburuak, izenak berak dioen bezala,* ***lau buru*** *esan nahi du. Buru bertikalek emakumearen adierazpenak irudikatzen dituzte (sentikortasuna eta pertzepziokoa), edo sua eta ura osagaiak. Aldiz, buru horizontalek gizonezkoen energia adierazten du (bai mentala eta baita fisikoa ere), edo airea eta lurra.*

*"Kondairak dioenez: Otsok, Herensugearen eta Lamien botere ilunaren aurka, Mairiren indarrez beteriko medailoi gisa erabiltzen zuen lauburua."* https://www.hiru.eus/eu/cultura-vasca/el-lauburu

*"Don José Miguel de Barandiaran hay algunas señales que apuntan a una influencia indoeuropea en el culto del sol. Las cabezas verticales, a veces llamadas OCASO, representan la expresión femenina (emocional y perceptual) o los elementos de fuego y agua. Las cabezas horizontales, a veces llamadas AMANECER."* https://www.elsantuariodelalba.com/2016/10/19/el-lauburu/

***"Lauburua*** *aintzinatiko* euskal ikur *esanguratsuena da. Izenak adierazten duen bezala, lau buru biribildun gurutze itxurako ikurra edo elementu estetikoa da. Euskal Herrian agerpen handia du, eta askotan euskal tradizio edo nortasunarekin lotzen da."* https://eu.wikipedia.org/wiki/Lauburu

**ARTELANEZKO IRUDI BAT BAINO GEHIAGO**

Izenak adierazten duen bezala, lau buru biribildun gurutze itxurako ikurra hau euskal artelanetan maiz agertzen da, euskal tradizio edo nortasunarekin lotzen dena.



Interpretazio asko ditu forma geometriko borobil sinple bezain interesgarriek osatzen duten aintzinako ikur honek. Aurkitutako interpretazioetako bat lauburuak eguzki izpiak eta haren mugimendu birakaria errepresentatzen duela da, dinamismoa emanez. Azken finean bizia.

Bira egiteko zentzuaren arabera ere interpretazio desberdinak bezain osagarriak izan ditzake: Eskumarantz biratzen badu bizia azaltzen du, eta aldiz eskumarantz biratzen badu heriotza

Lauburu birakaria mugimenduan ikusteko: https://es.dreamstime.com/almacen-de-video-movimiento-cruzado-vasco-h-video-video133528135

Eskumarantz edo ezkerrerantz biratzen duen arabera esanahia aldatzen omen da: http://euskalmitologia.com/sinesmenak/lauburu/

Alde bietara biratzen aurki ditzakegu, egurrezko erloju hauetan adibidez:

  

Lauburua batera zein bestera, historiaren orratzak aurrerantz…

Harrizko lauburuak ere ugari, mendi tontorretan, hilerrietan, etxe atarietan…

 



    

   

Donibane Garaziko etxe bateko ataria (1678) edo XV. mendean Oinaztarren eta Ganboatarren arteko bandoen guduetan neutral mantendu ziren Lilitarren Jauregiko baratzean edo mosaiko eran :

 sartu kartelaren argazkia) 

XVII aurrerantzean apaingarri gisa erabiltzen zutela esaten duten harren, badira gurean Lauburuak mendeetan zehar euskalduntasunaren sua piztuta mantentzen laguntzen duela jabetzen direnak eta bere artisau lanetan hala ikusi dezakegu:

Argizaioletan:






Egurrezko eta metalezko beste zenbait adibide:


















Hainbat eta hainbat bitxitan. Lepokoak, eraztunak, eskumuturrekoak, belarritakoak eta beste zenbait euskal oroigarritan:



























Batzuk bere gorputzeko azalean tatuatzeraino:



*"El conquis" Eitb-ko programan, euskaldun sentitzen den Madrildarrak besoan:*





Iparraldeko zein hegoaldeko autoetan ikusi genitzake hainbat eranskailu edo pegatina:







Kamisetetan, casual, jantzi dotore zein betiko kaikuetan:














Baita herrimin kutsuzko diasporakoak :







Edo bestelako janzteko konplementuetan brodatua:















Soziedade, jatetxe edo tabernetako atarietan aurki dezakegu:









Frankon garaian Espainiatik Bilbora etorritako langile auzo batetako tabernan, zein Mungiako talogile artisau baten anagraman:






Euskal Herritik kanpora ere bada “Lauburu” izeneko Michelin izardun jatetxe bat Tokion. Lauburua litzateke bere sukaldeko “enplatatuaren” hasierako irudia.






Eta nola ez, euskal produktuak mundu zabalean adierazteko. Esaterako Gateau Basque opil famatuak, , Kaiku esnekiak, goxokiak, Gorrotxategi turroiak, Nafarroako ardo botiletan…
















Musikan:

Euskal instrumentuetan ere maiz aurki dezakegu: Panderoetan, txalaparten makiletan, ttun-ttuna…





ALBOKA



eta baita trikitilari japoniar baten soinutxikian ere!





Lauburu taldea: Entzuleentzat nahiko ezezaguna gertatu arren, bost diskoz jantzitako ibilbide luzea osatu zuen Lauburu folk talde akustikoak. Euskal herri musika eta jatorri zeltakoa uztartzen aitzindari izaki, ez zuen zorte handirik eduki, nahiz eta estilo bikaineko musika ondu.



Jean Mixel Bedaxagar abestari txistulari eta atabalari zuberoarraren omenaldi baten:




Euskal gizarte aurreratuago baten anagrametan zein enpresetako logotipoetan:

Kirolean, txirrindularitza zalegoan, pilota jokoan frontoietan, munduan zehar ezaguna den zesta puntan etabar:









Bada *Lauburua* izeneko mahai-jolas bat ere, eta Pirritx, Porrotx eta Mari Motots-en karta jokoan:




Euskal makilaren buruan edo labanetan:







“Euskaldunen Ametsen kutxa” ekimena (2021) . Alboan lauburu bat dauka kutxak zizelkaturik:



Lauburua, zabaldua eta onartua, euskalduntasuna eta mistizismoa uztartuz, ikur kosmogonikoa, munduko beste biztanleen begietatik ikusita, ezaguterraza, esanahi sakon bati lotua, erraz ulertzekoa eta identifikatzekoa.

Lauburuaren sormenezko indarra agerian da alde guztietatik:

Rober Garaik urdaibaiko hondartzan marraztutako 54 metrotako hondarrezko lauburu erraldoia, edo lorez osatua:








Tartalo Music-ek diseinatutako Lauburua, “Izena duenak, izana  du ere”  obra:



Edo beste hainbat artelanetan. Plazetako eskulturetan… Zerain (Gipuzkoa), Tres Arroyos (Argentina)…







Aipatzekoak ere mundu mailan ezagunak diren euskal eskultoreek Lauburuarekin erlazionatutako beraien lanak:

Gaur Taldea osatzen zuen  artistetako batek, Jorge Oteizak, muga inposauan aurkitzen den Bidasoa aldeko Txingudi badian lan  eta bizi  izan zena, baina bere obra Nafarroari eman zionak landu zuen baita euskaldunak eta Lauburuaren arteko erlazioa.

“Lauburus, espirales y laberintos en los proyectos arquitectónicos de Jorge Oteiza”  Escuela Politécnica Superior CEU Madrid.

*Al contemplar la obra de Jorge Oteiza, se abre ante nosotros un universo estético lleno de enlaces moleculares, sonemas, tartes, unidades Malevich, diedros, triedros y frontones vascos; crómlechs, círculos, esferas, huevos, espirales y laberintos, que el escultor analiza y entreteje, en su lucha por recuperar la herencia ancestral del hombre vasco. El contenido simbólico de estas imágenes arquetípicas y su gran valor plástico, conforman un "sustrato formal y mágico", con el que el escultor trata de recomponer una compleja documentación, que conecta el proceso artístico desde la prehistoria vasca, hasta los movimientos del arte del siglo XX.*



*Entre los símbolos que Oteiza rescata en sus disertaciones (1) se encuentra el <u>lauburu</u>, término que en euskera designa la cruz de cuatro cabezas curvilíneas y se identifca con el sol en movimiento.*

*"la noche lunar, cambiante, cíclica, circunferencial, alimenta la mente del primer vasco y llegará a simbolizar lo sagrado, lo redondo, el silencio y el vacío"*

*Oteiza relacionaba a su vez el dinamismo de la Naturaleza y de las galaxias, en constante evolución, con el símbolo de la espiral, no solo como geometría plana sino por su relación con el crecimiento continuo, las matemáticas y el mismo universo.*

Lerromakurrezko edo forma kurbilineodun bere sormen lan batzuk:





Hala ere badu lerro zuzenezko " Construcción vacía" izena daukan lau planotan osatzen den eskultura abstraktu bat Donostian:



Jorge Oteiza eskultore eta pentsalariak, pentsatu eta ikertu egiten omen zuen eskultura bitartez. Bere lanen formek gogoetara bultzatu nahi omen ditu obraren ikusleak. Horrela diskurtso desberdinak sortuz.

Gaur taldeko beste artista batek ere lau aldeak nabarmen lantzen ditu, Eduardo Chillida Juantegui eskultoreak, bere “Haizearen Orratza-El peine del viento” hiru eskulturetako bakoitza **lau** besoz osatuta dago:



1976. urtean amnistiaren aldeko sinboloaren bere diseinua:




Forma borobildun “Zentral nuklearrik ez” mugimenduaren anagrama zuri beltza diseinatu zuen baita:




Euskal Herriko Unibertsitatearen logoa ere:



Eta zuri-Beltzezko pintura abstraktoen bildumako adibide batzuk:







Municheko Joku Olinpikoentzako edo Euskaltzaindiako argitarapen batean






Remigio Mendiburu, beste taldeko batek ere, egin zuen gaur egun Kanariar Irletan dagoen lan bat*: Dado para 13. Una ambiciosa escultura laberíntica de gruesas paredes de hormigón agujereado cuya planta se basa en el lauburu.*



Nestor Basterretxea bizkaitarrak ere badu lauburua oinarri duen bere eskultura bat, *Bost Haizeak*:



*Basterrexea emplea aquí una forma-signo fuertemente geométrizada para aludir a un fenómeno natural. Aparece la simbología del lauburu (cuatro cabezas) o esvástica curvilínea, símbolo originalmente precristiano usado desde los siglos XVI y XVII en estelas funerarias, frontispicios de casas o como amuleto, y, más recientemente, como símbolo de la cultura vasca.*

Edo bestelako artistek ere zerbaiteri euskal kutsua emateko sarritan erabilia:

*Adibidez1988ko euskararen aldeko jaialdi bateko musika diskaren azala eta logotipoa:*




Iparraldeko ikastolen ikur ezaguna edo Euskadiko Internet eta App onenentzako sariak:

Edo euskal golflarien taldearen anagrama edo Mexikoko Pilota eskolakoan:

Edo  baita Ezpeletako piperrekin egindako mahaigainekoa, edo lorontzietan ilaran jarrita:





Lauburuaren forma birakariek edozeinen irudimenari hegalak ematen dizkiotela ezin uka. Batzutan proposamen bitxi xamarrak bururatuz. Futbol zaleentzat adibidez:



Gorri ta zuria    Txuriurdina    Albiazula    Gorritxoa    etabar….

Lauburua ikur dinamiko bat da birakaria den zentzuan. Bada Gustaf Fechner filosofo eta psikologo alemaniarrak egindako ikerketa lan bat, zuri beltzezko disko bat azkar biratzean bitxiki koloreak azaltzen dira ikuslearen begietara. (Google: Efecto color Fechner)

Animazioa: https://www.arrosasarea.eus/2015/11/19/beltza-ta-gorrixe-3-a-lauburua/

Chillida eta Oteizarean kolorerik gabeko zuri-beltzezko interpretazio librearen ildotik jarraituz, hona hemen esangura are gehiago sakondu lezaken lauburuaren irudi zuri-beltz bat:



On Joxe Miel Barandiaranen arabera lauburuaren buruak honela kokatzen dira:

- Bertikalak emakumezkoak: Sentikortasuna-perzepzioa, sua-ura.
- horizontalak gizonezkoak: Energia mentala-energia fisikoa, lurra eta airea.
  https://hablemosdemitologias.com/c-mitologia-celta/lauburu/#Vasco

Lauburu zuri-beltzean bertikalak beltzak dira eta horizontalak zuriak jarri dira, mundu zabalera begiratuz, mendebaldeko filosofiako Ying-Yang-ean, beltza emakumezkoa eta zuria gizonezkoa omen delako.

Zuri-beltza, oreka unibertsala eta dikotomia. Munduan barrena filosofia gehienetan aurkitzen den indar osagarrien dualitate unibertsala barneratuz. Azken finean parte garen ama-aita natura bera.

Eta Jorge Oteizaren obra artistikoek pentsamendura gonbidatu nahi duten bezala hemen Lauburu zuri beltzaren interpretazio apal bezain esanguratsu bat:

- Lurra eta itsasoa
- Iparraldea eta hegoaldea
- Eguzkia eta ilargia
- Beroa eta hotza
- Gazi eta gozoa
- Zarata eta isiltasuna
- Materia eta energia
- Protoi eta elektroi
- Positibo eta negatibo
- 0 eta 1 kode digitala
- Aktibo eta pasibo
- Emea eta arra

- Subjektibo eta objektibo
- Kontziente eta inkontziente
- Ezker eta eskuma
- Ahultasuna eta sendotasuna
- Guda edo bakea
- Kolonizatzaile edo kolonizatua
- Eraiki edo deseraiki
- Euskara eta erdera
- Euskaldun-berri eta euskaldun-zahar
- Aurrera edo atzera
- Alaitasuna eta seriotasuna
- Poza eta tristura
- Garunaren ezker hemisferioa eta eskuinekoa
- Arima eta gorputza
- Kristauak eta jentilak
- Egia ala gezurra
- Bizitza eta heriotza
- Ke zuria eta ke beltza
- Zerua eta Infernua
- Argia eta itzala
- Galderak eta erantzunak
- Izan ala ez izan…



Dualtasun unibertsala nonahi eta noiznahi aurki dezakegu gure ingurura zein barrura so eginez.

Bitxikeria bezala aipatu badirela kultura askotan zisne, edo beltxarga, zuriak eta beltzei buruzko alegoriak. Adibidez beltxarga zuriak Afrodita, Apolo edo Sarasvati, espiritualtasuna, argia, garbitasuna, dotorezia, jainkozko jakinduria eta arazketa adierazten dutelarik.

Beltxargei buruzko ipuinen artean *"Beltxarga zurien lakua (El lago de los cisnes)"* izeneko Tchaikovsky-ren obra bat bada, beltxarga beltza agertzen dena. Obra maitasunaren eta magiaren artean garatzen da, ongiaren eta gaizkiaren borroka betierekoa lotuz. Sigfrido printzea, Odetterekin maiteminduta, Von Rothbart gaiztoaren sorginkeriak beltxarga bihurtutako gaztea eta Odile beltxarga beltza eta sorginaren alaba direlarik protagonistak.

Aipatu ere, *Beltxarga beltzaren teoria*, edo *Teoria de los sucesos del cisne negro*, existitzen dela, ezusteko gertaera bat deskribatzen duen metafora bat adierazten duena. Nassim Taleb filosofo eta ikertzaile libanoarrak teoria hau garatu zuen. Eragin sozioekonomiko handiko gertakaria, eta gertaera igaro ondoren, atzera begiratuz arrazionalizatzen duena (iragartzeko edo azaltzeko modukoa dela ematen duena, eta gertatzea espero zela ematen duena).

Gure herri usadioetan ere aurki dezakegu zuri beltza, Mundakako Aratusteetako atorrak eta lamien mozorroetan adibidez:

  

(Eranskinetan sakonago jorratzen da zuri beltzaren gai hau).

Azken finean Lauburua, historian zehar hartu dituen duen  forma edo koloreak direlarik ere, aintzinako gure arbasoen gurutze itxuradun gurtza ikur eratu zenetik gaurdaino, euskal herriari izena eta izana eman dion apaingarri soil bat baino gehiago dela ondorioztatzera hel gintezke. Sarritan, itzaltzeko zorian egon den euskal identitatearen, piztuta dirauen ilinti* bat bezala.

*"Lauburua, euskal nazioaren ikur? Arbaso euskaldun haiengandik, aintzinako ikur unibertsalen senide jator bat datorkigu gaur egunera euskararen ilinti gisa. Benito Lertxundiren abestiak dioen bezalaxe: Suaren bila atera ziren surik etzuten haiek, ikusmenaren mugaz gaindi dauden lurretara… Maitasuna bilatu gabe, aurkitu beharreko zerbait dela. Eta euskal nazio ikurretan armoniaren bila, Lauburu zuri-beltz bat aurkitu da!"*



*Ilintia:  Guztiz erre gabe mantentzen egun zatia, puts egin eta berriz sua pizteko.

**III. Goazen gudari denok ikurrinen atzean**

*"Ikurriña. Euskal Herrian, hasieratik gehien jazarritako ikurretako bat "*- Iñaki Egaña

Gaur egun Mauleko gazteluan, zaharkiturik eta ia kolorerik gabe aurki genezake dorreetako masta batean (2020).



Bereterretxen abestiak, gaztelu honetan gertatutako Agramondarren eta Beaumondarren arteko borrokaren pasarteari buruz dihardu; borrokak 1434tik 1449ra bitartean iraun zuen. Orduan Ikurriña ez bazen existitzen ere, euskaldun leinuen arteko gatazka sekularrretan baziren banderak, adibidez:



*Beaumondarren bandera*



*Oinaztarren armarria*

Sarrionandiaren *Hitzen ondoeza* liburuaren gogoeta pare batekin hasiz:

*"Bandoetatik hasita, XVI mendetik, hor gabiltza batu ezinik. "Aspaldiko joera dute euskaldunek bandotan antolatzeko eta mendekuari jarraibidea emateko. Aintzinako bando zaleek, ez zuten euskal naziorik eraikitzeko asmorik, ez zuten elkartasun behar larririk…*

*… Euskaldunok beti aurkitu dugu aitzakiaren bat elkarri muturra apurtzeko. Oinaz eta Ganboa, protestante eta erromakoi, karlista eta beltz…*

*Euskaldun lez irauteko eta herri lez antolatzeko ahaleginak beti desbideratu zaizkigu eta, elkar ondo jo dugunean, hondatu garenean, azkenerako, Borbon bat agertu da gure puskak uztarpean lotzen.*

*Egin ditugun burruka guztietan galdu dugu eta irabaziez gero ere galduko genukeen. Oraindik ere berdin ari gara, elkarrekin herrilez antolatzeko benetako asmorik gabe, mila urte igarota ura bere bidean…*

Izan zuten euskaldunek nolabait biltzen zituen erresuma bat ordea, errege, bandera eta guzti,: Nafarroako Erresuma. (XII.-XVII. mende artean independentea izan zena).






*Antso VI.a Jakitunarekin (1150-1194) Nafarroako Erresumaren lurrak eta Nafarroako Erresumako jatorrizko bandera.*

Batzuen aburuz Nafarroako bandera hobesten badugu, izan genuen Erreinutik estatu legitimoa berreskuratzeko bidea litzateke. Gainera Nafarroako Bandera, Ikurriña baino askoz zaharragoa da, zazpi mende dituelako, euskaldunon estatu independente batekin beharbada hobeto lotzen gaitu. Ez hori bakarrik, behin Nafarroako Erresumak (Burgosetik Akitaniaraino) euskaldun guztiok batu gintuen. Amaiurren edo Noaineko guduetan independentziaren alde borrokatu zutenen bandera izan zen. 1512an Fernando Katolikoak Nafarroako Erresuma konkistatu ondoren, 1515ean Gaztelako koroaren barruan sartu zuen arte. https://eu.wikipedia.org/wiki/Noaingo_gudua

Garai hartako Nafarroako Erresumaren inguruneko erresumetan bazeuden bere gudarosteek erabiltzen zituzten bandera gurutzedun ugari:



Europan barna,  Aro Modernoan bandera bigurutzedun kontuarekin jarraitzen zuten. Bitxiki, 1719 urteko Donostiako inbasio eta setio ankerrean parte hartu zuten soldadu frantses hauetako batailoi baten bandera zen, bi mende beranduago gure Ikurriña izango zen berdinaren jatorrizkoa:



*La Valliere Batailoi Frantsesaren bandera (XVII. mendea)*

**Ikurriña-Cien años.** Iñaki Egañaren liburua .[https://www.casadellibro.com/libro-Ikurriña-100-anos/9788481369397/472575](https://www.casadellibro.com/libro-Ikurriña-100-anos/9788481369397/472575)




- *La Ikurriña francesa* atalean honela dio: (31. Orr.)

En este repaso a las banderas del país y de sus vecinos, hubo una ikurriña como la de Sabino Arana mucho antes de que el bizkaitarra diseñase la suya. A veces se habla de casualidad para tapar otras historias. También muchas veces nos atrevemos a suponer más de lo que ofrece una simple crónica de azar. De cualquiera de las maneras, la referencia a la casualidad entre una bandera francesa del siglo XVIII y la ikurriña de los hermanos Arana es, sin duda, la hipótesis más factible. Probablemente la única posibilidad, vistos los gustos intelectuales y literarios de Sabino.

Sucedió que uno de los batallones franceses de solera, concretamente el Regimiento La Vallière llevaba como estandarte una bandera que en su aspecto era idéntica a la ikurriña de los Arana: una cruz blanca, un aspa verde y un fondo rojo. Colores, formas y ubicación de cada cruz y fondo respectivo eran iguales. Si un observador exterior hubiera visto a este batallón entonces y dos siglos más tarde hubiera asistido a una manifestación abertzale, hubiera pensado que ambas banderas eran la misma. Efectivamente, la bicrucífera vasca y la francesa de 1700 eran idénticas.

El origen del estandarte de La Vallière es puro azar. Las en-

señas de las diferentes tropas francesas que combatieron durante décadas en Europa tuvieron un denominador común: la cruz blanca. Más tarde, cuando las tropas galas fueron muy numerosas y diversas, esta cruz fue la de San Andrés. Estas banderas bélicas nacieron con una intención muy definida. En los ataques, huidas o dispersiones, cada batallón o cada regimiento, debía guiarse, en una estampida de consecuencias imprevisibles, de sus colores para dirigirse a una u otra dirección. En principio la cruz blanca, común a todos, fue combinada con diversos colores de fondo. Con tanta tropa y mando las banderas abarcaron todas las combinaciones posibles. Fue una de éstas, precisamente, la del regimiento La Vallière.

Pero el hecho más paradójico de esta crónica reside en que este Regimiento participó en el sitio y asalto de Donostia en 1719. En aquella época el inglés duque de Berwick al mando de 16.000 soldados, la mayoría de ellos franceses, atacó una Donostia defendida por el brigadier Alejandro de la Mota. El 29 de julio de 1719 la ciudad capituló, tres semanas antes de que lo hicieran el Castillo y la Isla de Santa Clara. Los franceses, algunos bajo los colores rojo, verde y blanco, tomaron la villa al asalto, robaron, violaron y asolaron durante los dos años que estuvieron en la localidad guipuzcoana. Hasta tal punto que el obispo se quejaba de que en esa época no pudo obtener diezmo alguno. Los donostiarras habían abandonado sus viviendas y caseríos hasta encontrarse seguros y a salvo de las escaramuzas de la tropa.

Hoy, la bandera del regimiento La Vallière es portada por la ikastola donostiarra Ikasbide en la tamborrada infantil que se celebra todos los años, el día de su santo patrón, en la capital guipuzcoana. Aunque los espectadores suponen que se trata de una ikurriña, su simbología corresponde a otra historia.

- Iñaki Egañaren liburuko 23-32 orrialdeetan ditugu pasarte interesgarri batzuk:

DE LA CRUZ DE SAN ANDRÉS A LA IKURRIÑA atalean esaten du historian zehar banderetako gurutzeek, baita Ikurriñaren San Andreskoa ere, jauntxo, errege eta gudekin daukatela lotura estua".



1813. urtean Donostiarrek frantsesen inbasio eta ingelesen setioan, frantsesengatik libratu zituztelakoan, are eraso ankerragoa jasan zuten ingelesengandik.

XIX mendean izan ziren euskaldunontzat bandera baten beharra sentitzen zutenak. 1894ko otsailaren 18an, Gamazada matxinadan, Nafarroako Castejón udalerrian Sabin eta Luis Arana Goiri anaiek erabilitako bandera eta lema: *Jaun-Goikoa eta Lagizarra - Bizkaitarrak Agur Eiten Deutse Naparrei:*



Baziren lehenago beste proposamen batzuk: “Las banderas olvidadas de los vascos”: https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/actualidad/Ikurriña-etxean/2020/04/06/las-banderas-olvidadas-de-los/1023202.html



Eta bitartean, Kantauriar-Nafarren banderea (1838), Euskal abertzaletasunaren aintzindaria zan Augustin Xahok Euskalerrirako asmaturiko bandera. Xahorentzat euskaldunak aintzinako kantauriarren ondorengoak ziran. Aingeru Astui Zarragaren web orrialdean: https://sites.google.com/site/euskalherrikoikurrak/bandera-nazionalak-banderas-nacionales-national-flags



Beste egitasmo batzuk ere izan ziren bere bandera eta guzti, adibidez 1764. urtean sortutako *Real Sociedad Bascongada de Amigos del país*-ek Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba Irurak-bat goiburuarekin lotzen zituena sortu zuen (1859) eta geroago Nafarroa atxekituz, Laurak-bat (1881):








https://sites.google.com/site/euskalherrikoikurrak/bandera-nazionalak-banderas-nacionales-national-flags

**Bigurutzedun bandera zuri gorri eta berdea: Ikurriña**

*“Karlista gerra, gure lurraldeetan suertaturiko Espainiako dinastia-ondorengotza gudatzat hartzea, ezer eskaintzen eta ezer argitzen ez duen simplifikazio bat da” (Alberto Santana)*

Euskal identitatearen alde borrokatu ziren haiengatik, XIX. mendeko Karlistadetako hiru gerren bidea agorturik, Sabino Aranak, besteak beste, abertzaletasuna suspertu zuten. Garai berean Arturo Campionen zuzendaritzapean egunkari bat sortu zuten Iruñean 1882an, Lau-Buru izena jarri ziotelarik hain zuzen ere:


LAU-BURU.

DIARIO DE PAMPLONA.

Gaur egun ezagutzen dugun Ikurriña, Arana Gori anaiek Bizkaiarentzat diseinatua, 1894ko arratsaldeko 6etan izan zen lehen aldiz masta batean eraikia agertzen da, EAJ-ren Bilboko lehen batzokia izan zen *Euzkeldun Batzokija* lokalean. Ziriako Iturri Urlezaga, ofizial karlista ohi eta bazkide zaharrenak jaso zuen. Urte batzuk geroago (1.908), Alfontso XIIa erregeak, Bilbora bisita egin zuen batean, agur militar bat egin omen zuen, balkoian erakusten zuen batzoki baten aurretik igarotzean.





Informazio interesgarri gehiago:
https://es.wikipedia.org/wiki/Ikurriña
https://www.hiru.eus/eu/cultura-vasca/Ikurriña
https://soberaniadenavarra.blogspot.com/2011/05/rojo-verde-y-blanco-ii.html?m=0

Hasieran Bizkaia adierazi nahi zuen Ikurriña hark izan zituen hamaika aldaera. Zazpi probintzientzako oinarri berbereko Ikurriña bana eta euskal errepublika izan zitekeenarentzako Ikurriña nagusi bat. Denak gorriberdeak, oinarri gorriaren gainean kristauen gurutze zuria (Jainkoa), marra berdeekin eta San Andresen gurutze berdea (Gernikako Arbola, independentzia):






Baina Euzkadikoa ez zen ezta, guztiz orijinala dirudienez:



Régiment de Sillery
1701-1707

Garai berean, 1902ko **irailaren 11an**, euskal munduko beste pertsonai garrantzitsu batzuekin batera, ***Eskual Zaleen Biltzarra*** sortuko dute Sabino Arana eta Arturo Campionek.

Luis Arana Goiri, Sabino hil ondorenego urteetan, gaur egungo Ikurriña Euskal Herri osorako proposatu zenean haserretu egin omen zen, Bizkaiarentzat sortua zela eta, Euskal herri osoarentzat beste bat diseinatu zutela aldarrikatuz.

Gudarien garaiko Ikurriñaren bertsio bat ere badago Sabino Arana Fundazioan gorderik. (Oinarri zuri batean eta Ikurriña goian ezkerrean):

https://www.sabinoarana.eus/Ateak-Zabalik/Argazkiak/emodule/1943/eitem/2033

*Gerraren ondoren, bandera hori ezkutuan egon zen, eta diktadura frankista betean, Villa Izarrara eraman zuten, 1957tik erbestean zegoen EAJ-PNV-ren Euzkadi Buru Batzarraren azken egoitzara, zaintzeko eta babesteko..*






Diasporan ere izan zuen eragina Ikurriñak:

*Rosario, 1913: La primera "guerra de las banderas"*

https://www.deia.eus/actualidad/historias-de-los-vascos/2022/02/12/rosario-1913-primera-guerra-banderas/1190735.html

*Sabino Arana y Goiri izó por primera vez la bandera vasca en los balcones del Euzkeldun Batzokija de Bilbao". No obstante, la ikurriña todavía era vista por aquel entonces –incluso entre los vascos– más como un emblema de partido, por lo que si bien había estado presente en forma de homenaje en la fecha fundacional de Euzko-etxea de Rosario (Argentina), los miembros de la nueva junta directiva evitaron proponer la bandera bicrucífera como emblema vasco de la entidad. Optaron, por lo tanto, por recurrir a otro emblema que, por aquellos mismos años, ya gozaba de una aceptación generalizada entre las colectividades vasco-americanas: el escudo del* ***Zazpiak Bat****.*

*El escudo en una bandera blanca que era la conjunción de todos los colores del iris, por lo que "en ella verá cada uno reflejados los matices de su predilección".*

Ehun urte pasa ditu gaur egun. Hala ere, gainontzeko Europako banderekin aldenduta, nahiko historia laburra du, baina baita historia ezohiko eta gatazkatsua ere.

Zalantzarik gabe frantziar eta espainiar estatuek bilatzen duten etnozidioaren aurrean, ezin dugu ahaztu Ikurriña bidelagun izan duela herri honek bere historiaren azken urteotako borrokan.

Primo de Riveraren diktadurapean (1923-19299, kirol-saio, erromeria eta erakustaldi folklorikoetan nabarmenki zabaldu zen Gipuzkoan eta Nafarroan euskaldunon bandera eta gu guztion batasunaren ikur bezala. Eusko Ikaskuntzak Euskal Herri osoaren ikurtzat deklaratu zuen (1931). Iparraldekoek ere, 1925etik aurrera, hainbat establezimendutan erakusten zuten eta euskal jai guztietan jasotzen. Euskaltzaleen Biltzarrak bere bilera ofizialetan jartzen zuen. 1932ko Aberri Egunean, Bilbo Ikurriñaz loraturik iraun zen egun osoan. Euzko Jaurlaritzak 1936ko urriaren 19ko Dekretuz, bere neurri ofizialak ezartzeaz gain, bandera nazionaltzat ofizialdu zuen.

Geroztik, milaka eta milaka gudari mota desberdinen odola isuri da hainbat frontetan.





Guda zibilean, *Bou Nabarra* gudarien itsasontziak  “Canarias” guda ontziaren aurka aritu zenekoa.

Bigarren Mundu Gerran Ikurriña eraman zuten “Gernika” batailoiko indarrek Frantzian zehar Hitlerren tropen aurka. Aliatuen tropen generalek agur militar bat egin zioten Ikurriñari ere.





1937an ehundaka gudari hil ziren Bizkagi mendian, beste fronte askotan bezala, ikurriña defendatzen: [https://aikor.eus/larrabetzu/1619683203023-gazteok-memoriaren-haria](https://aikor.eus/larrabetzu/1619683203023-gazteok-memoriaren-haria)

Gutxi iraun zuen ordea ofizialtasunak, guda zibilean gudariak Ikurriñaren atzean faxisten aurka borrokatu zuten arren, Frankistek guda irabazi eta 40 urtez debekatua izan zen.

1946ko uztailaren 18an, Francoren apogeoan, J. Elosegik Donostiako "Artzain Ona"-ren elizako dorrean jarri zuen bere biziaren benetako arriskuarekin. Frankismoan zehar beste hainbatek arriskatuko zuten bere bizia Ikurriña jartzeagatik. Tentsio altuko kableak ziren Ikurriña aireratzeko lekurik aproposenak eta sistema aski konplikatua eskatzen zuen operazioak.

Ikurriña debekuen gainetik aurrera joan nahi duen herriaren ordezkaria izan da, bere aldez odola emateraino. Errepublika garaian, frankismoan… Baita euskal nazioarekin, euskararekin eta euskal kulturarekin lotzen gaitu.

Ibilbide borrokalaria izan du Ikurriñak legalizatua izan aurretik eta baita ondoren ere.


Ikurriña que ondeó en el barco 'Goizeko Izarra' en su viaje desde Bilbao hasta Pauillac el 6 de mayo de 1937, cuando evacuó a mujeres, ancianos y niños para salvarles de la guerra.

Ikurriña del Batallón Arana Goiri, conservada en un convento de Pau.

Enseña utilizada en el coche oficial del Lehendakari José Antonio de Aguirre y Lekube.

Ikurriña de la Compañía Beti Aurrera del Batallón Saseta, conservada durante más de cincuenta años en el Chateau de Arcangues.

Eta Espainiako 1975eko konstituzioa ondorengo baldintzapeko askatasunaren ezinegonak, sufrimendu handia eragiten jarraitu dio gure herriari. Gaur egun oraindik zauriak sendatu gabe dauzkagularik. ETAko gudari hilak zerraldoa Ikurriñaz estalia ehorzten ziren beti. Geroago ETAk berak erraildakoak ere.





Euskaldunon historia hurbilekoan zehar, bai Noainen Nabarraren alde eta bai Bizkargi mendian Euskadiren alde esaterako, Nafarroako Bandera eta Ikurriña, euskaldunongandik bizia ematera arte errespetatu eta defendatuak izan direla aintzat hartzekoa litzateke.

Harrezkero Ikurriña euskal ordezkariek tokirik garaienetara eraman dute hainbat ekintzetan, esaterako 1980 urtean Martin Zabaleta hernaniar mendigoizaleak Ikurriña erakusten du Everest mendi gailurrean:



Edo Jose Luis Ugartek munduari bira bere belauntzian bakardadean eman zuenekoa:




Zalantzarik gabe, Euskal Herriaren historiaren azken 100 urteetan, Ikurriña bilakatu da euskaldunen sinbolorik kuttunenetarikoa.

Baina gaur egun, ofizialki soilik Euskal Autonomi Erkidegorako erabiltzen da:



Hiru probintzia soilik biltzen ditu armarriak. Nafarroakoa bere tokian itsatsita ere, motz gelditukо litzateke Iparraldekoentzako tokirik ez bait da utzi.




*Euskaldun guztion balizko lehendakari ohia*

2021an Iñigo Urkullu Lehendakariaren Urte Amaierako Mezua 2021, armarri ankamotzdun Ikurriña atzean duela:



Besteen artean Lehendakariak esaldi hauek esan zituen:

*Agirre Lehendakariak, duela 85 urte helarazi zuen bere lehen "Gabon" mezua, eta gaur egun indarrean dirauen ideia batekin bat nator; eta bera da soilik partekatu nahi dudana:*

*"Herritar orok du bere lanarekin, kapitalarekin eta jarduera intelektualarekin herriaren ongizate orokorrari laguntzeko betebeharra".*

*Horrekin batera, gizarteak orekari eustea eskatzen digu: osasun publikoa, osasun emozionala, osasun ekonomikoa, osasun soziala...*

*Historiako uneren batean herri batek batera egon eta jardun behar badu, hauxe da une hori.*

*Batzen gaituena indartzeko unea da. Banatzen gaituena albo batera uztekoa.*

*Bakoitzak egindako ekarpena Euskadi bultzatzeko modu bat da, gizartearen ongizatea, guztion ongizatea indartzeko modu bat.*

*Gure herriak bizirik dirau zailtasunei aurre egiten jakin duelako.*

*Esperientzia historikoak ildo nagusi bera erakusten digu: gizartearen ongizatearen aldeko lan partekatua: «auzolana».*

*Inor atzean uzten ez duen eta, pertsona bakoitzaren ekarpenarekin, guztion ongizatea eraikitzen duen Euskadi aurreratua.*




Edo egun berean Nafarroako lehendakari den Maria Chivite Navascués-ek esandakoa*:*

*"Tenemos buenos indicadores de empleo, de crecimiento, de cohesión, y somos la comunidad con mayor calidad de vida gracias al esfuerzo y el compromiso conjunto que hacemos. Las administraciones, la iniciativa privada, y todas las personas que formamos parte de este proyecto ilusionante que es Navarra."*

Edo Iñaki Sotok Gara-ko editorialean idatzitakoak egun berean:

*“Cómo afrontar la resaca”*

*Cuando menos, hay que pensar en hacer las cosas de otra manera. Llamar «nueva normalidad» al programa para retomar al precio que sea la «vieja normalidad» no parece una buena estrategia para estos tiempos convulsos.*

*Nunca hay que despreciar el carácter espiritual del ser humano, su naturaleza simbólica, pero de esta marejada no se salva uno rezando, ni a dioses viejos ni a nuevos.*

*Frente a la ideología del individualismo, la clave está en leer, escuchar y debatir en serio, sin trampas. En hacer y hacerlo bien, en base a buenos modelos. Tenemos la fortuna de vivir en un país en el que las actitudes ejemplares, las luchas y los compromisos vitales han sido comunes. Pensar en esos sacrificios voluntarios, compartidos y disciplinados, que no ciegos, es la mejor manera de tenerse a raya a uno mismo. Casi nadie es tan importante.*

*No buscamos adivinar el futuro, sino plantear escenarios, analizar procesos, ver tendencias, marcar agendas y favorecer cambios que sirvan para mejorar la vida de las personas y de la sociedad vasca.*

*Siempre que se pueda, hay que celebrar estar vivas. Porque no estaba garantizado. Como personas, como comunidades, como pueblo. Muchos pronosticaron nuestra desaparición. Por antiguos, por ilusas, por pequeños, por taradas, por pobres, por innecesarias, por inferiores… Está en nuestras manos seguir anulando esa profecía.*

*Pensar en el futuro supone medir fuerzas, trazar caminos, construir instrumentos y alianzas. Hay que tomar decisiones recordando lo aprendido, lo que hemos ensayado, lo que ha funcionado y lo que no. Hay que ser más. Hay que escuchar lo que dicen los que saben y adivinar lo que saben los que callan.*

*Por supuesto, nunca hay que olvidar que el objetivo no era sobrevivir, sino la libertad, la igualdad y la justicia. Nuestra responsabilidad al respecto recae sobre lo que hagamos con nuestro país, con la gente que vive y trabaja, que quiere vivir y trabajar en Euskal Herria. Hay que cuidarla, hay que cuidarse. Nuestra responsabilidad es lo que hace nuestro país con este planeta y para las siguientes generaciones.*

*El que no quiera salir mejor de esta, puede rendirse o empecinarse. El resto, deberá mantener la dirección y el sentido, deberá recordar constantemente los objetivos y renovar sus compromisos. Y respirar hondo. Porque si algo está claro es que, en la corta vida de un ser humano y en la larga historia de una nación, la marea nunca deja de subir y bajar.*

*Iparraldeko EHbai eta Hegoaldeko ehbildu-ren hitzaldian, bi banderak ezker-eskuin*→



Joseba Sarrionandiaren olerki batek honela dio alabaina:

> *Eta finean / euskalherria, / San Agustinenak eta faltsua-egia / frogak pasa ondoren, / bene-benetako herri dadinean, /asmaketa ahaztuko dugu. / Estatu tekniko bat utzi eta ikurrinak / sukaldeko trapu bihurtuko ditugu, / gure herriak izatearenekin batera / ez izatearen abantailak izan ditzan.*